

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
2.313 positibo guztira*

1 hildako
4 hildako EAEn

NAFARROAN

113 positibo berri
8.690 positibo guztira

2 hildako
86 ospitalizatuta

*Hernanin 55 Astigarragan 20

Sendatuak: 17.098 EAEn; 4.296 Naf.

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Geldialdian ere, bizitza berriak sortzen


HERNANI
ERDITZEAK



Udaltzain eta aguazilak jo eta su, egokitzen

URUMEA
UDALTZAINGOA

8-9



Goi-mailan arituta ere, ezin herrian entrenatu, Irazustabarrenak

HERNANI
PALA

14

Hamaika ofiziotako etxea

Barrutik berri dute Iriartenea eraikina, 50eko hamarkadan bota eta berriro eraiki zutena. 1957koa da argazkia, obrak egiten ari zirela. Aurretik eta ondoren, jarduera ezin antzagoetarako gunea izan da.

2-3



Martxotik %11,23 gehiago, Urumeako langabetuak

URUMEA
LANGABEZIA

11



Estreinakoa, berezia: «umore kutsu haundi bat hartu liburuak»

HERNANI
ERIKA ELIZARI

12

Dendariei eskerrak, basamortuaren erdian bizi mantentzen jarraitzeagatik

Konfinamenduan zehar ere, hainbat denda eta komertziok irekita izan dituzte ateak, eta horregatik eskerrak eman nahi izan dizkie Berriak, Merkatari eta Ostalarien Elkartek. Era berean, herritarrak hausnarketa egitera gonbidatu ditu, tokiko komertzioak daukan garrantziak ohartu daitezzen.

HERNANI
BERRIAK

4

Garraio Zentro Integrala «gako», hornidurarako

Covid19ak eragindako egoerak Garraio Zentro Integralaren beharra baieztatu duela azaldu dute Batzar Nagusietan. 46 plaza gehiago egingo dira.

ASTIGARRAGA
GARRAIO ZENTROA

5

Itxas-Buru Sagardotegia

J.D. EUSKAL SAGARDOA

Osina Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

Ekainaren 4an irekiko ditugu ateak

Ostegun gauetik igande eguerdira. Covid-19 egoera dela eta, arauak betetz, beharrezkoa izango da mahaia erreserbatzea. Aldez aurretik, mila esker.

Hamaika ofiziotako etxea, Iriartenea: behitegi, zinea, eliza probisional, dantzaleku...

Orain gutxi bukatu dituzte eraikina berritzeko lanak, barrutik. Lanei buruz eta sortuko dituen aukera berriez hitz egin du Unai Miranda alkateak, eta eraikinaren historiai buruzko zertzeladak ekarri ditu Jose Javier Etxeberriak.

GOIZUETA IRIARTENEA

«Leitzatik etorrita, errepidearen ezkerretara, Goizuetako aurreneko etxea zen Iriartenea, etxe haundia», ekarri du gogora Jose Javier Etxeberria historialari goizuetarrak. Hura baino lehen, orain frontoia den tokian, landa besterik ez zegoen. «Ezagutzen den Goizuetako aurreneko argazkian, 1905ekoan, oso ondo ikusten da Iriartenea, bere egurrezko balkoi luzearekin».

1555ean herria ia osorik erre zuen sutearen ondoren eraikitakoa zen etxe haundi hura; berriagoa da, ordea, gaur egun dagoena, bota eta berriro eraiki baitzuten 1950eko hamarkadaren bukaeran.

Hamaika eginkizunetarako eraikina izan ondoren, barrutik berri dute orain, biziberritu nahian. Auzolanean jarriko die errematea lan horiei, alarma egoerak uzten duenean.

Goizuetako bikarioaren etxea, 1637ko lehenengo erreferentzian «1555 urtean, Goizuetan erre ondoren, altxa zituzten gaur egungo etxe gehienak, eta horietako bat da Iriartenea», azaldu du Etxeberriak. Aurreneko erreferentzia idatzia, 1637koa du historialariak: «aipamena egiten zaio Iriartenea etxeari, eta dio, Goizuetako bikarioa bizi zela bertan, Don Martin de Valcarlos», azaldu du.

Hortik aurrera, eraikinaren pista galtzen da, 1905eko argazki horretara arte. «Landa garaitik aterata dago argazkia, Leitzako bidearen aldetik, eta aurreneko planoan ikusten da zein zen etxea, nahiko ondo».

Garai hartan, komertzianten baten eskuetan izan zen Iriarte-

nea: «XX. mendearen hasieran, bazen komertzianten bat Goizuetan, Angel Loyarte. Orduan Donostiara komertziantzen zen asko, esnea, bildotsak... Eta herriko komertzioa ere berak kontrolatzen zuen. Ba Iriartenea, behitegi bezala zeukan berak», kontatu du historialariak.

Zinea eta eliza probisional, elizaren esku egon zenean Gerora, ordea, elizak erosi zuen eraikina, eta zentro parrokiak bezala erabili zuten. Orduan etorri ziren aurreneko berritze lanak: 50eko hamarkadaren bukaeran, eraikina bota zuten, eta altxa zuten gaur egun dagoena, toki berean.

Etxeari, gainera, beste puska bat gehitu zioten orduan, eraikinaren atzeko aldean, baratzak zen tokian: «eta hori izan zen Goizuetako zinea. 1959an bukatu zuten eraikin berria, eta or-

Bikarioaren etxea zen 1637an, behitegi bezala erabili zuten Angel Loyarte komertziantek gero, eta zinea izan zen bota eta berriro eraiki zutenean; baita eliza probisional ere, eliza obretan zenean.

duan inauguratu zuten zinea. Sartzen zinen gaur egun dagoen eraikinetik, eta pasatzen zinen gehitu zioten beste puskarak, zina», gogoratu du Etxeberriak.



Goizuetako aurreneko argazkia, 1905ekoa. Aurreko landaren segidan, balkoi luze-luzea daukana da Iriartenea. Argazki guztiak dira, Jose Javier Etxeberriak utzitakoak.

Hamar bat urtez funtzionatu zuten zineak: «bi apaiz arduratzten ziren horretaz, Don Eugenio eta Don Saturnino Mujika. Don Eugenio 1968an hil zen, eta urtebete beranduago Goizuetatik joan zen Don Saturnino. Eta orduan utzi zion zineak funtzionatzeari».

Beste funtzio bat ere bete zuten Iriarteneak, elizaren esku egon zen urte haietan: «garai hartan, obra haundi batzuk egin zituzten elizan, eta denbora batez, Iriarteneak egin zituen elizarenak. Meza ematen zen bertan, hiletak ere bai... Pare bat urtez izanzen zen hori», azaldu du historialariak.

'Las Vegas Txikia', makina bat herritakoak dantzarako elkartzuta Horren ondorengoa da, Tifanitxo izenaren kontua. 70eko hamarkadan, dantzaleku bezala erabili zen eraikina, beheko solairuan: «oso ondo funtzionatu

zuen, igandeetan eta horrelakotan. Oso famatua izan zen, ambiente ikaragarria izaten zen. Hernanitik, Oiartzundik... etortzen ziren hona dantza egitera. Garai hartan, *Las Vegas Txikia* ere deitzen zitzaion».

Tifanitxo izena, Donostiako dantzaleku ezagun bati zor dio, eta askok, izen horrekin ezagutzen dute, oraindik ere.

«Beste hamarkada batez funtzionatu zuten dantzaleku bezala», dio Etxeberriak. Eta gerora, gazteleku bezala erabiltzen hasi ziren, 1995ean, eta baita herriko jarduera batzuk egiteko ere.

«Zentro parrokiako akzionista zirenen artean, gehienek utzi zuten, eta gelditu zena izan ziren zorrak, horrek ez baitzuen etekinik ematen. Orduan, Elkartasuna elkarteak ordaindu zituen zor haiek, eta bere esku geratu zen eraikina. Gaur egun Udalarena da, elkarrekin bera geratu zelako Udalaren esku»,

azaldu du historialariak.

Iriarteneara gerturatzen denak, ikusiko du 1959an altxa zuten eraikin hura, frontoia ondoan. Aitzeko aldean ez du zinerik topatuko, puska hura bota egin baitzuten, eta aparkaleku bezala erabiltzen da gaur egun.

«Oso zaharkituta zeuden bi solairuak, eskailerak, instalazio elektrikoak...»

Eraikinaren barrura sartuta, berriz, itxuraberrituta ikusiko du. Izan ere, orain gutxi bukatu dituzte Iriartenea barrutik berritzeko lanak, auzolanean azkeneko errematea jartzeko faltan. «Duela lau urte berri ziren hormak eta teilatua, baina oso zaharkituta zeuden bi solairuak, eskailerak, instalazio elektrikoak...», azaldu du Unai Miranda alkateak. «Lan hauekin, bi solairuak sendotu ditugu, hormigoiarekin; eskailera berriak jarri ditugu; eta instalazio elek-

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, J. Osa, M. Ramirez
de Alda, I. Santa Kruz
eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM



triko guztia ere berritu dugu».

Duela lau urte eraikinaren oinarriak eta kanpoaldea sendotu ondoren, «barrukoa egokitu eta berritzea tokatu zaigu orain. Oraindik ez dugu lan hori bukatu, falta baitzaigu txukunketa lan horiek egitea, auzolanean», azaldu du alkateak.

Komun publikoa, herrian zegoen kezkarri erantzunez

Barruko lanetan, lehenengo solairuko komuna ere berritu dute; «eta horrekin batera, aprobetxatu dugu beste komun bat jartzeko behean, kaletik sarbide zuzena duena, eta erabilera publikokoa izanen dena. Independiente geratzen da».

Hain justu, komun publiko bat jartzea zen udal gobernu talde berriaren helburuetako bat, sartu zenean: «urte pila bategan izan ditugu komun publikoak herrian, baina gero kendu egin ziren, eta ordutik ez ditugu eduki. Herritarren artean sumatzen zen kezka hori, eta obra honekin lortu dugu jartzea. Aurretik aukera ezberdinak landu izan dira, non eta nola egin. Udaletxean bertan ere izan zen proiektu bat, medikuaren kontsultarenean egiteko; gerora igogailuaren obrarekin batera egiteko aukera ere aztertu zen, baina bertan behera geratu zen azkenean. Eta obra honekin, ikusi genuen aukera geneukala horretarako».

Lau lokal aurreneko solairuan, eta beste bi bigarrenean

Berritze lanak bukatuta, erabilgarri izanen dira lau lokal aurreneko solairuan, eta beste bi bigarrenean, ganbaran. Aukera berriak sortuko dira, horrela: «erabiltzaile nagusia Gazte Asanblada izan da orain arte, baina Ezker Abertzaleak ere bazuen lokal bat bertan. Eta orain ere, lokal bana haientzat izango da. Obra egiten hasi ginenean, eragileen artean galdetu genuen inork lokalen bat nahi ote zuen, eta interesa azaldu zuten bik, GoizuKoop kooperatibak eta Basauntz ehiztari elkarteak. Beraz, lehenengo solairuan, haiek hartuko dute bana, eta Ezker Abertzaleak beste bat. Eta goi-

ko solairuan, Gazte Asanbladak izango du bere lokala, eta bestea erabiliko da udaletxeak antolatzen dituen eskulan ikastaroak eta horrelakoak egiteko. Hortaz, geratuko da lokal bat aurreneko solairuan, momentuz ez daukana erabilera jakinik, baina aurrera begira, edozein bilera edo hitzaldi antolatzeko, egokia izan daiteke lokal hori».

157.697,55 euroko kostua izan dute obrek, eta diruz lagundu dute, 50.000 euroekin, Nafarroako Gobernuak eta Feaderek (Europako Landa Garapenerako Funtsa).

Auzolanerako, «eskulana beti izanen da ongietorria»

Esan bezala, azkeneko lanak egiteko, auzolana deituko duela iragarri du Goizuetako Udalak. Horretarako, baina, zain daude egoerak noiz ahalbidetuko: «ez dakigu noiz jarri ahal izanen dugun martxan, horrekin gaude zalantzan». Azkeneko erremate batzuk eman eta margotzea da, egin beharrekoa: «egiteko falta dena da, pareta batzuk errematatu, eta ondoren margotzea. Badira lan batzuk, eskatzen

Lokal bana izanen dute Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, Basauntz elkarteak eta GoizuKoopek. Ikastaroetarako erabiliko da beste bat, eta gela bat dago libre, «hitzaldi eta bileretarako egokia».

dutenak eskarmentu pixka bat edukitzea; baina deialdia zabala eta irekia izanen da, lan batzuk edonork egiteko modukoak baitira. Eskulana beti izanen da ongietorria», dio Mirandak.

Alkateak azaldu du, bestalde, argiztapena Udalak hartuko duela bere gain. Eta altzariei dagokienez, erabilera publikorako izanen direnetan, Udalak jarriko ditu mahaiak eta aul-



Jendetza elkartzen zen, Iriarteneari atzeko aldean gehitu zioten puskan: zinea izan zen, hamarkada batez.

kiak; ikastaroenean, adibidez. «Gainerakoetan, behin lokalak erabiltzen hasten direnean, erabilera ezberdinetarako izanen direnez, ikusi beharko da zein behar dauden, eta eragile bakoitzak eraman beharko ditu behar dituenak, horren arabera».

Aspalditik datorren prozesua izan da berritze lanena, eta prozesu horretan, harremanetan izan dira eragile ezberdinekin: «bilerak egin izan ditugu, obren gorabeherak azaltzeko eta hurrengo pausoak adosteko», azaldu du Unai Mirandak.

Gazte Asanbladaren etorkizunarekin, kezkatuta

Azkeneko hartu-eman horietan, ordea, «zalantza askorekin» ikusi du Gazte Asanblada alkateak, eta kezkatu egiten du horrek: «nahiko pesimista ikusi ditugu, Gazte Asanbladaren etorkizunari buruz hitz egite-rakoan. Guretzako oso garrantzitsua da gazteak antolatuta egotea, eta espazio bat izatea horretarako. Esperantza badaukagu, obra honekin eta sortuko diren aukera berriekin, beraiek ere hasiko direla berriro mugimenduan», nabarmendu du.

Udalak garbi dauka, Gazte Asanbladak bere tokia izan behar duela Iriartenean: «goiko solairuan dagoen lokal bat beraiek erabiltzeko nahi zuten, eta



Iriartenea, 1959an, zaharra bota ondoren berria eraiki zutenean.

beheko solairuko taberna, kontzertuetarako. Gainera, beraiek ez aurreikusi arren, tabernan ere egin dira konponketa batzuk. Oraindik ez dira bukatu horiek,

auzolanean egingo ditugulako baita ere. Espero dezagun auzolanarekin eta berrikuntza lan hauekin, haiek ere motibatzea eta animatzea berriro». **K**

NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:
09:30-13:30
Aurretik hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Ostiralean irekiko ditugu
ateak berriro

AKARREGI
sagardotegia

Egoera dela eta, egin erreserba aurretik
ASTEAZKENETIK IGANDERA

Akarregi Auzoa - Hernani | **660 144 560**

Covid19ak sortutako basamortuan bizia, komertzioak

Eskerrak eman dizkie Berriak elkarteak atek irekita izan dituzten komertzioei, eta herritarrak hausnarketa egitera gonbidatu ditu.

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Berriak elkarte herriko komertzioei eskerrak ematen ari da, Covid19aren eraginez ezarritako alarma egoeran ere, «herriko komertzio asko lanean aritu direlako atek itxi gabe». Unai Agirrerren bertsoa daraman txartela banatu die.

Hernaniko establezimenduetako «heroiak»

Elkarteak, irekita jarraitu duten denda horiei guztiei eskerrak ematez gain, gogorarazi nahi izan du «haien lana ezinbestekoa» izan dela, «Covid19ak herria, auzoak eta kaleak basamortu bihurtu dituenean, Hernani bizirik mantendu» dutelako.

Horrengatik eman nahi izan dizkie eskerrak, «denbora honetan guzian zehar irekita mantendu diren establezimendu horiek guztiek egin duten ahaleginagatik. Denbora honetan zehar askotan entzun dugu nola aipatu diren osasungintzako heroiak, eta haiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu, baina, oraingoan, detaile txiki hau eduki nahi izan dugu Hernaniko establezimenduekin».

Unai Agirrerren bertsoa

Esker horiek helarazteko, dendaz denda txartelak banatzen ari da Hernaniko Merkataria eta Ostalarien Berriak Elkarte, eta txartel horretan, Unai Agirre bertsolari hernaniarraren bertsoa txertatu dute.



Jaione Kongelatuak denda Berriak elkartearen txartela jasotzen.



Antziola okindegia.

*Garai errazak ez dira eta
Gogoan daukagu hori
Bihotz bihotzez hernaniarrek
Eskerrik asko denori
Une zailetan guri laguntzen
Lan egin duzutenori*

Herriko komertzioaren garrantzia

Bestalde, Berriak elkarteak aprobetxatu nahi izan du herritarrak hausnarketa egitera ere gonbidatzeko. Izan ere, dio: «denboraldi honek erakutsi eta ulertarazi digu internetekin denak ez duela balio, eta herriko komertzioei esker izan ez balitz, askori zaila egingo zitzaioela hozkailuak beteta edukitzea, berehalakoan tresneria informatikoarekin hornitu ahal izatea...».

Hori horrela, elkarteak hausnarketa egitera gonbidatu ditu



Orekan.

herritarrak, «konturatu daitez herriko komertzioak daukan garrantziak».

Covid19aren aurrean kartelak, euskeraz

Komertzio eta ostalariak laguntzeko, Bai Euskararik ere bere ekarpena egin du. Horrela, Covid-19arekin lotutako zenbait esamolde bildu eta kartel edo errotuluak sortu ditu, euskeraz, euskeraz eta gaztelaniaz, eta euskeraz eta frantsesez. Horietan, besteak beste, establezimenduetan osasuna bermatzeko hartu beharreko neurrien inguruko esaldi eta aholkuak biltzen dira.

Nahi dutenek, eskura daukate kartelak Bai Euskarari webgunean, komunitatearen atalean. **K**

Aisialdirako proposamen gehiago aukeran, gazteek

Txanpinoiak saltsan egin edo kirolaren inguruko galdetegia erantzun ahal izango dira gaur. Pelikula eta jolasa izango dira bihar.

ASTIGARRAGA-HERNANI GAZTELEKUAK

Maiatzeko egitarauari jarraitpena emateko, Astigarragako Gaztelekuak *Gazterrezeta* berria probatzeko aukera izango dute gaur gazteek: txanpinoiak saltsan. Bihar, berriz, *Diario de una anoréxica* dokumentala ikusi ahal izango dute.

Hernanin, bestalde, 18:00etatik aurrera kirolari buruzko galdetegi bat zintzilikatuko da Gaztelekuaren instagram kontuan, eta galderak ondo erantzuten dituztenen artean baloi bat zozketatuko da. Bihar, berriz, *Uno!* jolasean aritu ahal izango dute, baina, horretarako, aplikazioa deskargatu behar da mugikorreran. Astigarragan etzi probatuko dute.

Xaguxar, sare sozialetan

Aisialdirako Astigarragako Xaguxar taldea ere ari da proposamenak egiten. Facebook orrialdean ikusi daitezke. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaietan izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Osasuna eskolatik

Ez badugu politika zuzentzen, planeta-gizateria binomioak amore emango du, produkzioa-merkatua binomioaren aurrean. Eta hondoratu egingo gara berritara, ez bada...

Ez bada... horretatik abiatu behar genuke, ehuntzeko gizarite berri bat, salbazio komunitario eta indibidualerako. Ideiak ehuntzen hasi, Daniel Innerarity filosofoak proposatzen duen bezala: «mundu hau birpentsatu behar dugu inklusioaren eta ingurumena babestearen ikuspegitik, eta begiz jota trantsizio digitala, trantsizio ekologikoa eta mundu inklusiboago baten antolaketa».

Bertako berehalakotasunaren hemen eta orain horretan: «erabateko lehenetsua eman behar diegu kudeaketa publikoarekin lotutako balioei, bestela hondoratu egingo gara», dio Juanjo Alvarez katedradunak: «kontua ez da gauza asko egitea, funtsezko zerbitzu publikoak ahalik eta ondoen eskaintzea baizik».

Eskoletan gehiago erakusten badute aprobatazeko formatzeko

baino, eta medikuntza fakultateetan sendatzeko, ez gaixotzeko baino, hondoratu egingo gara. Txikitatik erakutsi behar da osasunaren autogestioa, elikaduran oinarrituta, eskolako menu autonomo batetik abiatuz, eta sukarrak egoerak naturaltasun gehiagorekin hartuz.

Hondoratuko gara, gure osasunaren zaintza uzten badugu sistema baten esku, non aitoren handienekoak prestatu diren osasuna erreparatzeko; eta *quijote* gutxi batzuk mantentzeko, errekonozimendu gutxi jasotzeko, babes sozialeko sistemari, osasun publikoari eta estatuen aurrezkiari hainbeste lagundu dioten arren, faktura farmazeutiko izugarria murriztuz eta, horrela, kopuru hori ekipamendu kliniko-sanitarioetara bideratzea ahalbidetuz.

Gure haurrak benetako osasun iturrietan hezteak, herrialdeari aberastasuna dakarkio, eta motibazio hori da, helduen osasunerako ispilu onena.

Iulen Lizaso Aldalur



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




Zentrala Latsunbe 7, Hernani
HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

«Garraiolarien beharrentzat», Garraio Zentro Integrala

Astigarraga eta Oiartzunen egingo duten Garraio Zentro Integralaren proiektuaren berri eman zuten egindako Batzar Nagusian.

ASTIGARRAGA GARRAIO ZENTROA

Astigarraga-Oiartzun Garraio Zentro Integralaren proiektuaren egoeraren berri eman zuten, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako diputatuak eta Alfredo Etxebarria, Bidegiko zuzendariak Batzar Nagusietan. Hori dela eta, batzarrean jakinarazi zuten Covid-19ak eragindako egoera honek, baiezta egin duela horrelako azpiegitura baten beharra, «garraiolarien beharrei erantzuteko irekita dagoen gune bat, gizarte osoaren hornidura mantentzea ahalbidetu duten gakoetako bat baita» gaineratuz.

Bileran aipatu zen, Garraio Zentroaren lanak «erritmo onean» doazela. Gainera, Bidegi foru-sozietateak irekita dauka bi plataformak «kontserbatzeko, mantentzeko eta ustiatzeko lizitazio-prozesua». Plataforma horietako bat, Astigarragan aurkitzen da eta bestea berriz, Oiartzunen. Eta lizitazioaren zifrei eta datei dagokionez, honakoa azaldu dute «zenbatekoa 6 milioi eurokoa da, eta 8 urteko us-tiapen-epea izango du».

Astigarragako plataformaren zerbitzu-erakin berria egiteko, bai eta horretara bideratutako partzelaren urbanizazioa egiteko ere, «urtebete eta bost hilabeteko epea izango du». Gainera, Astigarragako eta Oiartzuneko plataformetan pertsonen eta ibilgailuen sarbide- eta barne-zirkulazioa kontrolatzeko beharrezko instalazioak eta ekipamenduak gauzatu beharko dituztela ere aipatu dute, eta bi eremuetako zerbitzu-erakinek «jatetxe-kafetegia, supermerkatua, komunak eta dutxak, telebista-aretoa edo jolas-gunea eta garbategia» izango dituzte.

Gaur egungo aparkalekuak, bi gune
Gaur egungo aparkalekuak bi

gune ditu, bat noranzko bakoitzarentzat; 105 aparkaleku ditu Bilborako norabidean, eta 57, Behobiarako norabidean. Birmoldaketa proiektuak «bi zabalgunek plataforma bakar batean bateratzea» aurreikusten du, «Donostiarako noranzkoan 190 aparkalekuko azalera osatuz».

Momentu honetan, Astigarragako plataforma «berdinketa eta urbanizazio fasean dago». Eta azpiegitura berriak, 46 plaza izango ditu, gainera «hoz-kailu-kamioientzat, eta postu bakoitzean korronte elektrikoko hartuneak» izango dituela jakinarazi dute. Astigarragan 28, eta Oiartzunen 18, eta bi plataformetako aparkalekuak «txandakakoak» izango dira.

«Euskadiko bakarra, eta Estatuko haundiena»
Garraio Integral zentro hau, Euskadiko «bakarra» izango dela aipatu dute, eta «Estatuko haundiena, segurtasun eta zerbitzu maila urrezkoa duena Europako estandarren barruan». **K**

Jarduera fisikorako, lehentasunezko hiru gune asteburuetan

Herriko hiru eremu egokitu ditu Udalak, lehentasuna izan dezaten oinezkoek eta txirrindulariek, jarduera fisikoa eta kirola egiteko.

HERNANI UDALA

Kirola edo jarduera fisikoa egitea da, osasun alarmaren puntu honetan, baimenduta dagoen ekintzetako bat; eta horri helitzen diote, egunero, makina bat herritarrek; bereziki, asteburu iristen denean.

Horren jakitun, zenbait neurri hartu ditu Hernaniko Udalak, eta jakinarazi du, gaurtik aurrera, asteburuetako tarte batzuetan hiru eremu egokituko direla herrian, oinezkoek eta txirrindulariek lehentasuna izan dezaten, jarduera fisikoa eta kirola egiteko. Jarduera Fisiko eta Kirol Saila eta Udaltzaingoa arituko dira elkarlanean, horretan.

Urbietan, Sagastialde eta Akarregiko eremuetan izango dira horiek, alarma egoerak irauten duen bitartean, «modu erosoagoan eta seguruan aritu daitezten laguntzeko». Hori horrela, moztu egingo dira errepide batzuk.

Urbietan kalean, 450 metro inguruko tartea egokituko dute, igandeko 06:00etatik 23:00etara. Eta ordutegi berean, Sagastialde auzoan, atletismo pistaren aurreko errepidean norabide bat itxiko dute, 300 metroko luzeran.

Eta Akarregin, azkenik, zenbait bide itxiko dituzte, larunbete 16:00etan hasi, eta igandeko 19:00ak arte. Batetik, gasolindegitik Hernaniko sarreraraino doan errepidea itxiko dute; bestetik, Karabeletik Landarera bidean doan errepidea, Zubipeko parkinaren sarrera pasa ondoren; eta azkenik, Floridako lur azpiko pasabidean sartu baino lehen. Horrela, hainbat ibilbide zirkular ahalbidetuko dira.

Plano guztiak daude ikusgai kronika.eus web orrian. **K**

Lo falta eta stresari erremedioa, Kimerako Nesa XSignal Neuromodelazio teknologiarekin

KIMERA PUBLIERREPORTAJEA

Nesa XSignal Neuromodelazio ez inbaditzailea jarri berri du Kimera Fisioterapia zentroak bezeroen eskura. Teknologia berritzaile honek nerbio sistema modulatu eta hobetzen du, eta saio gutxitan emaitza ezinhobeak ematen ditu.

Teknika honekin tratatu daitezke, besteak beste, lo eta insomnio arazoak, estresa, antsietatea edota fibromialgia, eta kirol elkarte profesionalen ere erabiltzen da, errendimendu fisikoa hobetzeko.

Kimera Fisioterapia, zerbitzu hau eskaintzen duen Zentro Ofiziala da.

Minik gabeko tratamendu atsegina

Nesa XSignal neuromodulazio ez-inbaditzaile honek nerbio-sistema periferikoaren bide sensitiboak erabiltzen ditu funtzionamendu bioelektriko egokia optimizatuz, 14,28 Hz-ko maiztasuna gainditzen ez duen mikrokorriente batekin.

Saioak 30 minutu eta ordu-bete artekoak izaten dira, eta emaitzak era mailakatuan lortzen dira, eta denboran mantendu egiten dira.

Teknika honen abantailetako bat da bezeroak ez duela minik nabaritzen, ez da sumatu ere egiten, eta atsegina izan daiteke. Gune zehatzetan elektrodoak dauzkaten eskularru eta orkatiletakoak jartzen zaizkio bezeroari, eta beste elektrodo bat jartzen da tratatu nahi den patologiarekin lotuta dagoen gorputz atalean. Kasu larri eta kronikoak tratatu daitezke.

Nerbio-sistema begetatiboa lantzeko aukera

Teknika honi esker, orain arte eskurazina izan den eta berebiziko garrantzia duen eremu bat lantzea lortzen da: bizi-funtzioez arduratzen den nerbio-sistema begetatiboa. Horrela, loaren kalitateari dagokionez, efektu ikusgarriak lortzen dira eta loaldi konpontzailea erraztea ahalbidetzen du. Loaren

kontziliazio-arazoak, lo egin ezina, estresa eta antsietatea teknika honen bidez trata daitezke.


Horrez gain, teknologia honen bidez fibromialgia tratatu daiteke. Modu esanguratsuan murrizten da mina, eta gaitxoaren bizi-kalitatea hobetzea lortzen da.

Azkenik, aipagarria da, baita ere, Nesa XSignal teknologia kirol elkarte profesionalen ere erabiltzen hasia dela, hala nola, futbol, saskibalo, padel, txirrindularitza... elkartean, beste tratamendu batzuk laguntzeko teknika gisa. Horrela, eragin analgesiko eta erreperatzaileak lortzen dira, eta errendimendu fisikoa hobetu.

Saio mota desberdinak

Kimera Fisioterapia zentroa hasia da, dagoeneko, Nesa XSignal Neuromodelazio ez inbaditzailea erabiltzen. Saio mota desberdinak ditu aukeran.

Nahi izanez gero, saio bakarra probatu daiteke, baina aukera badago, baita ere, 5 eta



Nesa XSignal makinarekin insomnioa tratatu daiteke, besteak beste.

10 saiotarako bonoak eskuratzeko. Hauek, egokiagoak dira kasu kronikoak tratatzeko, edo mantentze tratamenduetarako.

Saio gutxitan, emaitza ezinhobeak ematen dituen teknologia da, eta Kimera Fisioterapia zerbitzu hau eskaintzen duen Zentro Ofiziala da.

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia
www.kimerafisioterapia.com
• 638 421 060 •
Hernani - Astigarraga - Donostia

Geldialdi garaian ere, hasiera berriak

Konfinamendua ezarrita ere, bizitzak aurrera egiten du. Hala gogorarazten dute hilabete hauetako erditzeek.

HERNANI HAURDUNALDI ETA ERDITZEAK KONFINAMENDUAN

Egoera bereziak ekarri dituzte koronabirusaren eraginez ezarritako konfinamenduak eta neurri bereziak. Hala ere, batzuentzako garai berezia izan zen hau, bestela ere; guraso

bihurtzekotan ziren, eta konfinatuta edo ez, bizitzak aurrera egiten duela erakutsi diete haien haur jaioberriek.

Etxean edota ospitalean, nor bere egiten duen ingurunean erditzea garrantzitsua dela azpimarratzen dute protagonistek. Hortik aurrera, datorenari aurre egin behar zaiola diote, tokatzen den moduan. Osasun alarma egoerak eragin ditu aldaketa batzuk, baina, orokorrean, normaltasuna nagusi dela diote guraso berriek, eta lasaitasun mezua bidaltzen diete, etorkizuneko. **K**



Izan, Helena eta Ander alarma-egoeran ezarritako ordutegietara egokitzen saiatzen ari dira.

«Egoera hau da, eta dena pasatzean ezagutuko dute; ez dut penarekin bizi»

Etxeko goxotasunean jaio zen Irai, maiatzaren 3an. Koronabirusaren eraginez ezarritako alarma egoera ez du apenas nabaritu, eta etxean dago, Aitziber Otegi amarekin, Laxaro Zubeldia aitarekin, eta Enai anaiarekin.

HERNANI IRAI

Ez da haurra izan duen aurreneko aldia izan, Aitziber Otegiarentzat, eta, agian, horregatik, lasai bizi izan ditu haurdunaldia eta erditzea. «Perfektua izan denik ezin da esan, azkenean mina pasatzen baituzu, baina oso azkarra izan zen». Koronabirusak, behinik behin, ez die kezka haundirik sortu, nahiz eta egoera kontuan daukaten. «Egia da guk segitzen dugula prebentzio neurri guztiak betetzen. Azkenean, ume jaioberri batekin, ez dakizu».

Ospitalean, maskarilla

Haurdunaldiko azken hilabete eta erdia etxean konfinatuta pasatzea egokitu zaio Aitziber Otegi, koronabirusaren eraginez. Etxean erditu du Irai, baina ospitalera egin behar izan du joan-etorriren bat. Egoera bereziak eragindako aldaketak sumatu ez dituenik, ezin esan, baina lasai bizi izan dituzte familian.

«Erditzea izugarri ondo joan zen, baina gero, tentsioa altu neukan. Preeklanpsia gaixotasuna izan zitekeen baztertzeko gora joan beharra nuen. Analiak egin zizkidaten, eta dena ondo zegoen. Tentsioa ere egonkor-tu zitzaidan. Gero, hipertentsio gestazionala izan zitekeela-eta,

gaua bertan pasa behar izan nuen, eta goizean hartu zidaten berriro tentsioa. Ondo. Egia esan, arreta ona izan zen. Covid proba egin zidaten. Positibo eman izan banu beste neurri batzuk hartu beharko zituzten, beste gelaren batera eramanez. Baina negatibo izanda, larrialdietako ohiko martxarekin jarraitu genuen. Hori bai, maskarillarekin. Ospitalera iritsi berri, maskarilla jar-tzea derrigorrezkoa zen».

Alde nabariena, haurdunaldiaren aurreko eta erditze ondorengo arretan nabaritu dituzte. «Konfinamenduaren aurretik, bai emaginarekin eta baita ginekologoarekin ere, aurrez aurreko arreta jasotzen genuen, baina ondoren, telefono bidezkoa, emaginak estreptokoko proba egin behar izan zidanean izan ezik. Bestalde, Grosera, azken ekografia egitera, bakarrik joan behar izan nuen, bikoteak ez zeukan aukerarik hor egoteko, eta horren falta bai sumatu nuela. Bestalde, konfinamendu egoeran erditze aurreko ikastaroak bertan behera geratu dira, eta erditu ondorengoak ez dakit noiz jarriko diren martxan. Enairen haurdunaldi eta jaiotzarekin alderatuz, hori nabaritu dut».

Erditze ondorengo arretari dagokionez, «ospitalean erditu



Laukotea osatu dute konfinamenduan, Aitziber, Laxaro, Enai eta Iraik.

«dutenak etxera bidaltzen direla» dio. Beraiek alderantzizko bidea egin zuten, umea jaio eta 72 ordu pasa baino lehen proba batzuk egin behar zaizkiolako. «Hitzordua eman ziguten pilaketak saihesteko, eta maskarilla erabili behar genuen. Baina tratua- ren aldetik, Enairekin bizitakoarekin desberdintasun haundirik ez dugu nabaritu. Uste dut ama-umeen eraikinean, tentsioa sumatu badaiteke ere, lasaiago dela, larrialdietan gehiago nabaritu dela, eta nolabait erai-kin garbia dela».

Orain, hiru aste pasata, egokitzen ari dira, prebentzio neurriak betetzen, baina lasai. «Familiakoek ez dute Irai ezagutu, aurrez aurre. Baina, alde batetik, ondo dator, batzuetan erditu ostean bisitak gehiegizkoak izaten baitira... Egoera honetan, etxeko lasaitasunean gaude, eta bideo-deiak badaude. Egoera hau da, eta dena pasatzean ezagutuko dute; ez dut penarekin bizi».

Etxeko erditzeek, gora

Otegiaren esanetan, «etxean er-

ditzeko erabaki gehiago hartu dira konfinamendu egoeratik, ospitalea saihestegatik. Magaleko emaginek hala diote. Azken batean, denok daukagu buruan ospitalera joateak ekar lezakeela Covid19rekin gaixotzea, edo beste zerbaitekin».

Baina Aitziber eta Laxarok lehendik ere hartu zuten erabaki hori. Enai ere etxean eduki zuten. «Goizean esnatu, eta gosaldia egin nuen, lasai. Gero, kalera atera nintzen bueltatxo bat ematera. Lehenengo aldia zen kalera nijoala, gainerakoan, prebentzio moduan, etxeko erai-kin barruko eskaileretan ibili bainintzen gora eta behera». Kontrakzioekin 13:30ak aldera hasi zen, eta intentsitateak gora egin arte itxoin zuen, hala adostuta. Komunean, 16:00ak aldera poltsa hautsi zuen, eta 16:30etarako emaginak etxean ziren. «Animalia instintoa atera zitzaidan, kontrakzioak pixkanaka gero eta intentsitateak eta segidakoak ziren. Poltsa hautsi eta bultzatzeko gogoia etorri zitzaidan. Lau hanketan jarri, eta pelota aurrean nuela, bultza

egin nuen, lehenengo erditzean bezala; 16:45ak izango ziren, eta 17:40etarako besoetan genuen Irai. Oso ondo».

Hain zuzen, etxean erditzea hautu bat dela azpimarratzen du. «Uste dut emakume guztiak garelai gai etxean erditzeko. Ez naiz ausarta, hautu bat egin dut. Emakume bakoitzak aukeratu behar du berari hobekien dijoakiona. Ni erditze-gelan lan egindakoa naiz, eta niretzako, nahiago nuen tenpoak nik mane-jatu, etxeko goxotasuna... Ospitalea arrotza da. Baina beste batek erditu dezake ospitalean segurtasun haundiagoa ematen diolako bertako tresneriak, ginekologoak... Bakoitzak aukeratu behar du. Gertatzen dena da, etxean erditzea ez dagoela onartuta. Osasun publikoak ez du eskubide gisa onartzen, beste herrialde batzuetan bezala, eta etxean zerbaite gertatuz gero, mundua erortzen zaizu gainera; ez egoera zaila bizitzeagatik bakarrik, baizik eta gero, mediku taldea daukazulako kontra. Gauzak argi eduki behar dituzu».

«Erditzea nolakoa izango den ezin duzu aurreikusi edo kontrolatu»

«Eskemak hautsiz» iritsi da Izan, Helena Cancelo eta Ander Txintxurretaren bizitzetara, apirilaren 11n. Etxean erditzeko ideia zuten, baina ospitalean bukatu behar izan dute. Han ere, aurreikusi gabeko egoeran. Baina «normaltasuna» nabaritu dute.

HERNANI IZAN

Aurreneko bi-hiru asteak «nahiko gorabeheratsuak» izan dituzte, baina «pixkanaka egonkortu da umea». Hasieratik, «eskemak hautsiz» ekin dio bizitzari Izanek. «Ideia zen etxean erditzea», azaldu du Helena Cancelo, amak. «Baina erditzea nolakoa izango den ezin duzu aurreikusi edo kontrolatu». Hori bera «neurri batean polita» izan dela dio Ander Txintxurreta, aitak. «Inportanteena ez da non jaiotzen den, baizik eta gertatzen denarekin norberak zer egiten duen, zerekin jartzen den harremanetan, eta gai ote den horrekin egoteko. Ikasketa hori da».

Etxetik ospitalera

Hiru gau «oso gogorak eta intentsoak» pasa zituen Cancelok, kontrakzioekin. Baina egunean zehar geratu egiten ziren. «Hirugarren egunerako leher eginda nengoen, mina gorputz guztian, atsedetik ezin hartu». Horregatik igo ziren ospitalera, epiduralarekin mina arintzeko.

«Baina ez zen eroso sentiaraziko ninduen nire ingurua; banekien ez zela sortuko, eta ez zen sortu. Nekea batetik, eta aurrera egin ezina bestetik, kirotan sartu behar izan genuen, eta ate haunditik!». Zesarea egin behar izan zioten. Hortik ere ikasketa ateratzen dela azpimarratzen du Txintxurretak; «batez ere Helenaren kasuan, ez baita erraza hori onartzea». Baietz dio berak. «Saihestu nahi nuen guztiarekin egin nuen topo, baina ez zegoen beste modurik, bere bidea eta jaiotza hori zela onartzea baino. Bizitzaren miraria horrelakoxea da!».

Bizipen horiekin nahikoa entretenituta, ez zituzten modu nabarmenean nabaritu osasun alarma-egoeran ezarritako neurriak. Aitak ezin zuen kirotan egon, «baina hori beti da horrela». Gainontzean, «sartzean eskuak garbitu, maskarilla jantzi, eta hortik aurrera, dena normal zegoen erditze-gelan. Giroa lasaia da ama-haurren sailean. Normaltasuna da nagusi».

Normaltasun berria, zalantzarik gabe

Kontzeptua gero eta gehiago erabiltzen den honetan, haur jaioberrira dutenentzat are nabarmenagoa bihurtzen da 'normaltasun berrira' egokitu beharra. «Txip aldaketa egin beharra dago, zure norbanakoaren bizimodua izate-tik, 24 ordutan haur bat besoetan edukitzera», dio Cancelok.

Konfinamenduak ekarritako egoera berriari dagokionez, erditze ondorenean nabaritu du alde. «Haurdunaldiaren azken hilabetean harrapatu ninduen, eta ordu-rako etxekotua nengoen ni, barrura, etxera, nire kabira bilduta. Ez zen arazo izan. Baina erditze-ondorena gogorragoa egiten ari zait».

Ospitaletik etxera ohikoa baino egun bat lehenago bidali zituztela gogoratzen du Txintxurretak, eta ondoren, egoera «barregarriak» bizi izan dituzte. Anbulatorioan emagina eta pediatriarekin egin beharreko bisita batzuk telefonoz egitea hobea zela uste izan dute batzuetan, koronabirusa medio, eta joateko agindu diete. Beste batzuetan, be-

rriz, alderantziz. «Baina ez dugu buruhauste haundirik izan». «Orokorrean lasai» daudela dio Cancelok. «Arreta aldatu da, aurrez aurreko bisiten falta medio. Ebakuntzako orbainak min ematen zidan, eta kosta zitzaidan, baina azkenean lortu nuen aurrez aurreko bisita, eta orduan, emaginarekin primeran». Hortik aurrera, falta haundiena, familiarena nabaritu dute. Bizkaian bizi da Cancelorena. «Oraindik ez dute haurra ezagutu. Bestalde, ordutegia ere gogorra da. Jaioberri batekin ordutegi gabe bizi zara, eta nahastuta gabiltza. Orain arteko gogorrena, hala ere, izan da beso gehiago ez edukitzea, behar baita». Aita ados dago amarekin. «Lehenengo bi asteetan eskertzen da lasaitasuna, izugarri. Gure izaera ere horrelakoa da. Baina, azkenean, hau oso intentsoa da». Txintxurretaren familiak aste honetan ezagutu du Izan aurrez aurre.

Nork, bere denborak

Ezer ez da atera aurreikusi bezala. Baina etxean erditzearen

aldeko aldarria egiten dute. «Ez da aukera kontua ere», dio Helenak. «Kontua da, non sentitzen zaren eroso. Nik eroso eta seguru, maite nituenekin egoteko tokia behar nuen, emagina eta bikotearekin. Prozesuak bere bidea egin dezan, behar duzu goxotasuna, intimitatea, denboraren presio eza. Ospitalean denak denbora du, eta bestela, esku-hartzeak hasten dira. Nik presioarekin ez dut funtzionatzen, eta ikusi zen. Hori bai, ospitalera joan behar izanez gero, zorionekoak, ospitaleak!»

Ander ados agertu zen, Helenak etxean erditzeko ideia planteatu zionean. «Naturalagoa iruditzen zait. Pentsatzen dut pixkanaka berreskuratu behar genukeela naturaltasun hori bizitzaren arlo guztietan, batez ere, osasungintzan. Falta da garai bateko jakituria eta egungoaren arteko uztarketa. Iruditzen zait hori dela bidea, bakoitza prest dagoen neurrian. Gero, ez dakizu ikasketa non dagoen, baina prozesua polita da»

«Eskertuko genituen bisitak, beste esku batzuk umea hartzeko»

Konfinamendu egoera ezarri, bi aste etxean pasa, eta alarma-egoeraren gorenean jaio zen Elaia, martxoaren 27an, Donostiako Ospitalean; Oihane Sanz eta Mikel Rodriguezen aurreneko haurra. «Momentuan ez genekien zer zetorren».

HERNANI ELAIA

Normal zijoan dena Oihane Sanz eta Mikel Rodriguezentzat. «Anbulatorioko erditze-aurreko klaseez aparte, Magalen ibilginen, ordutegiagatik bikoteak ezin baitzuen besteetara joan, eta hau bion gauza da».

Ospitalean erditzeko erabakia hartua zuten hasieratik, baina «etxean ahalik eta gehien eustea ezinbestekoa» zela erakutsi zieten, «eta egoera honetan, gehiago!». Espero ez zuten egoera egokitu zitzaizkien, «ezzaguna zen egoera hori, etxean konfinatuta bi aste pasa eta ez-tandaren unean. Orain gehiago ezagutzen da gaitasuna, eta agian, beldur gehiago dago. Momentuan ez genekien zer zetorren».

Goizeko 09:00etan kontrakzio arinekin hasi, gaueko 21:00etan indartsuagoak sumatu, eta 00:00ak arte eutsio zion Sanzek. «Hori zen gure helburu nagusietakoa; ospitalean ahalik eta denbora gutxien egitea, oxitozinak eragina edukitzeko lasai egon behar baituzu, eta ospitalera goizegi igoz gero, moztu edo mantsotu daiteke. Ez zuen lagunduko. Azken bi asteak etxean egoteak ere, mugimendu gutxiarekin, gutxi laguntzen du erditzea». Baina ederki joan zen dena. «02:45etan gainean neukan Elaia».

Koronabirusaren eragina ez zuten bereziki nabaritu. «Sartzean maskarilla eman zidaten, baina erditze-gelak lasai kentzeko esan zidan emaginak. Gerora badakit jarri behar izan dela. Hasiera zen, eta agian protoko-

loa ez zen hain zorrotza. Ez dakit ondo edo gaizki, baina hala izan zen. Bikotea ere ondoan izan nuen denbora guztian».

Ondorena, arraroagoa

Konfinamendu egoera ezarri zenerako, gutxi geratzen zen Elaia munduratzeko, eta beraz, egoeraren eragina, bereziki, erditze ondorenean nabaritu dute. «Emaginak, adibidez, oraindik ez nau ondo begiratu».

Haurrak ere egoera arraroa sumatzen dutela ikusi dute. «Ospitalera ezin zen inor joan. Umea kalera atera da hilabete zuenean, baimena eman dutenean; ordura arte, ezer ez. Eta familiarekin ere ez gara egon. Hori da gogorrena. Eta eskerrak garai hauetan gaudela, eta bideo-deiak badirela! Baina hau-



Bizitasun haundiko umea da Elaia, Oihane ama eta Mikel aitaren esanetan.

rra ibili da antsiarekin, suminkor, ingurukoaren eragina hor dago. Kalera edo anbulatoriora atera eta dena da tentsioa, eta umean nabari da. Esaten digute hirurok bakarrik ondo gaudela, baina, egia esan, eskertuko genituen bisitak, noizean behin beste esku batzuk umea hartzeko. Egoera ez da normala, eta umea ere antsiar, negarrez arituta da. Gu ere berriak gara. Ezin

atera kalera, etxean denbora guztian, itogarria da».

Dena den, pozik daude, oso. «Erditzea oso ondo joan zen. Oso ondo nago. Nire iritziz, azkar errekuperatu naiz, eta ez daukat kezarik. Azkenean, ateratzen duzu zure barruko indar hori guztia honi aurre egiteko. Fisikoki oso ondo nago. Psikologikoki, gora eta behera... Hormonak dantzan!».

«Lan pedagogiko haundia egitea egokitu zaigu»

Koronabirusari aurre egiteko konfinamendua eta alarma-egoera ezarri zirenetik, herriz herri, udaltzain eta aguazilek izan dute irizpideen berri jakin eta emateko ardura. Orokorrean herritarrak ondo portatu direla diote, batez ere, umeak.

HERNANI ANDONI PIKABEA

Martxoaren 16tik 23rako eta 23tik 30erako asteak «izugarriak» izan zirela gogoratzen du Andoni Pikabea, Hernaniko Udaltzainburua. Koronabirusari aurre egiteko konfinamendua osoa ezarri zen bi aste horietan, lehenengoz. «Lehenengo astelehenean 300 edo 400 dei jaso genituen. Jendeak ez zekien. Gero izan dira erdian beste hiru-lau aste, baldintzak egonkortu direnak, eta jendea joan da ikasten. Uste dut jendeak oso ondo asimilatzen duela zer den debekua, eta bat-batean etorri zenez, jendea oso erraz egokitu zen lehenengo egunetan».

Aldatu egin da egoera, ordea. «Deseskalatzea hasi denean, etengabeko galdera sortu da, zer bai eta zer ez, eta Udaltzaingora deitzen da. Hau izan da kezka guztiak jasotzeko fokoa. Gehienak erantzun ditugu, baina beste batzuk, erantzunik ez zuten».

«Irizpideak betearaztea gure esku geratu da»

Eguneroko martxa egokitu behar izan dute Hernaniko udaltzainek. «Konfinamendu egoerarekin gauzak zeharo aldatu ziren». Batetik, eskoletako sarrera-irteeren kontrola egin beharra bertan behera geratu zen, trafikoa ere asko jaitsi zen... Eta bestelako lan bat gehitu zitzaion: «lehenengo dekretuaren ondoren, irizpideak betearaztea gure esku geratu da».

Horrekin batera, «antolamenduan aldaketa inportanteena eragin duena izan da txotx denboraldia bertan behera geratu izana». Horretara edota bide heziketara bideratutako udaltzainak bestelako kontrol lanetara bideratu ahal izan dituzte, horrela. «Kontrol lana da Kaxkoan egotea, plazetan, auzoetan, kirol-pistetan, parkeetan... eta momentu honetan, adinaren arabera ordu tartekak bete ditzala jendeak. Lan pedagogiko haundia egitea egokitu zaigu. Udaletik eta nire aldetik ere, irizpidea hori izan da; aurreneko egunetan jendeari irakatsi, eta gero, poliki-poliki, zorrotz edo indartu, eta behar izanez gero, isunetarako prozedurak martxan jarri. Fasero gauzak aldatzen dira, eta beraz, aurreneko astea pedagogikoago lantzen dugu, eta bigarrena zorrotzago».

Herritarrei irakatsi aurretik, ordea, norberak ikasi behar! «Astelehenak dira gogorrenak, dekretu

eta aldizkari ofizial gehienak igandetan argitaratzen baitira. Nik igandean irakurtzen ditut, eta astelehenean, txanda aldatketak egiten ditugunez, goizean saio eder bat egiten dugu aldaketak ezagutu eta zalantzak argitzeko. Era berean, Babes Zibileko langilea gurekin biltzen da aholkuak emateko». Eta Ertzaintzarekin tarteka koordinazio bilerak egiten dituzte, «ahal den neurrian denok irizpide berdinekin jokatzeko».

Irizpide horiek, noski, denentzako dira. «Besteentzako diren irizpideak guretzako ere badira. Nik, behintzat, horrela transmititu ditut». Kotxeetan bi udaltzain bata bestearen ondoan joan ote daitezkeen zalantza sortu zaio hainbat herritarri. «Kotxe guztietan joan gara diagonalean, neurriak errespetatzen. Neurriak hartzen badira, hau da, maskarilla jarri, eskuen garbiketa ondo egin... Ondo. Kotxearekin gertatu da beste gauza askorekin bezala, aldatketak izan direla. Orain familia osoa joan daiteke babesik gabe, baina hasieran, jendea, baita senar-emazteak ere, kotxetik jaitziaz behar genuen, diagonalean jartzeko eskatzeko. Gauza absurdoak badaude».

«Besteentzako diren irizpideak guretzako ere badira»

Gainontzean, behar diren higie-neurri guztiak hartzen dituzte, denek bezala. «Materiala eskuratzea hasieran nekeza izan zen, baina orain oso ondo hornituta gaude, eta datorren astean udaltzain guztiok Koronabirusaren proba egingo dugu. Baina esaten diet, eskuak garbi eta distantziak mantenduta, salbu gara. Baina maskarilla denok jartzea ere etorriko da. Horretan talde lan haundia egin da maskarillak josten, eskuz egiten...».

Herritarrak, pauso bat aurretik

Lanik zailena, seguru asko, deseskalatze fasean ari dira izaten, udaltzainak. «Egokitzapena iraunkorra da hemen. Eta jendeak irakurtzen du prentsa, ikusten du telebista... eta gauza asko ateratzen dira, baina aldizkari ofizialen zain egon behar duzu. Herritarren kezka jaisten da, eta gainean egon behar dugu tentsio puntu hori mantentzeko. Aurreneko fasean sartu berri-tan, jendeak bigarrenarengatik



Andoni Mirena Pikabea, Hernaniko Udaltzainburua.

galdetu du. Herritarrak pauso bat aurretik dijoazte. Galdezka ari dira, erabakirik hartu ez denean: oporretara nola joan ahal izango diren, adibidez».

Baina, orokorrean, ondo portatzen da, Pikabearen esanetan. «Neurriak zorrotz bezala, jendea beldurtu zen, eta datuek erakusten zuten pandemiaren bilakaera. Uste dut jendea egon dela momentu batzuetan oso larrituta; bereziki, zaharrak. Hilabetetik gora egin dute etxetik atera gabe. Guk ez ditugu ikusi ere egin, umeak bezala. Beldurra libre da, eta neurri batean denok beldurtu bagara ere, populazio horretan gehiago sentitu dute, eta oraindik ez zaie joan. Beste adin batzuetan, deseskalatzean, errazago jaisten dira eskilarak, baina uste dut oraindik badagoela zati bat kostako zaiona eskilara horiek jaisten, kalera. Berdin, umeekin. Ez da xamurra izan geratzea, eta deseskalatzea zaila egiten da. Gogoratu nahi dut haurrek oraindik ordubeteko tartea dutela. Bada garaia tarte gehiago emateko. Momentu honetan kaltetuenak dira. Besteok nahi adina atera gaitzke!».

140 isun proposamen

Hasieran neurriak «zorrotzagoak eta garbiagoak» zirela dio Pikabeak. «Konfinamendua oso garbia zen, eta beraz, arrazoi jakin batzuk bakarrik zeuden kalean egoteko. Guretzako errazagoa zen desberdintzea zein zegoen lekuz kanpo. Orain, kalera atera eta 40 laguni galdetzen badiet, denek izango dute arrazoiren bat, eta bestela, terraza bila ari direla esan, eta kitted! Konfinamendu

osoan apenas ikusten zen jendea kalean; trafikoa, zer esanik ez, lau kotxe eta bost kamioi».

Batzuetan bereizketak egitea zaila izan bada ere, isunak jarri dituzte. «21.000 biztanleko herrian, 140 isun proposamen egin ditugu». Azaltzen du LSC, herritarren babeserako lege gisa ezagutzen diren isun proposamenak direla udaltzainek egindakoak. «Guk egiten ditugu txostenak, zigor proposamenak, baina ez dugu zehazten zenbatekoa. Hutsegite administratiboak dira eta isuna dakarte, baina guk proposamenak egiten ditugu. Gero, Jaurlearitzak tramite administratiboa jarraitzen du».

Dena den, «normalean jendea nahiko txukun» ibili dela dio. «Gauean izan ditugu espediente dezente; asko nabarmentzen da gauean norbait ikustea». Baina, «desmadrea ere ikusten» da bere iritiz. «Zorrotz eta aspektu eta leku guztietan, ez dakit zeinek bete dituen neurriak ehuneko ehun». Eta begitaratean hartuak helduak dituela dio. «Hogeita piko eta berroegita hamapiko urte artekoak. Ez dute eredu ona ematen. Zaharrak txukun ibili dira, umeak fenomeno batzuk izan dira, gaztetxoak ere, salbuespenak salbuespen, nahiko txukun aritu dira. Baina helduok, deseskalatzean pentsatu dugu atek ireki zaizkigula eta dena libre dela, eta zentzua ez zen hori».

Balkoietako polizia deitutakoak ez zaizkio gustatu, hala ere. «Gaizki ulertutako herritarren lankidetzaren eredu da. Ez zait gustatzen figura hori. Berriek arauak oso zorrotz bete di-

tuztelako nahi dute besteek ere betetzea, eta guk kontrolatzea».

Bestelako elkarlanean ere aritu dira, hala ere. Hasieran Sardiasterriko zaharren egoitzara egindako bisitak oso hunkigarriak izan zirela aipatzen du, «oso egoera larrian zeudenean». Gero, konfinamenduan zehar hainbat herritar zoriontzera balkoietara ere gerturatu dira. «Bazuk izan dira oso gogorak, zoriontzeari minbizia duen haur bat, edo aniztasun funtzionala duten pertsonak... Baina haien irrifarrak beste indar bat dauka. Alderdi horretatik, esker pila bat jaso ditugu».

«Ohitu beharko dugu»

Guztia lasaitzen ari dela dirudien honetan, datorrenarekiko kezka ere adierazten du Udaltzainburua. «Ohitu beharko dugu honetara. Denbora dezentean ez dugu biziko martxoaren 15a baino lehen bizi izan. Uste dut ez garela ohartzeko benetan honek edukiko duen bilakaeraz. Asteetik atera bizi gara orain. Baina 2008an konpondu ez zena hor dago, eta krisialdia sakonagoa izango da. Drama soziala hortik etorriko da. Udako pozarekin ez gara konturatuko, baina udazkenean azaleratuko dira itxialdiaren eraginak. Nonbaitetik aterako da orain arte eutsitakoa».

Udaltzaingoa lanean jarraitu besterik ez du izango. «Ari gara berreskuratzen bigarren mailan geratutako lanak, Udaltzaingoa ez baita bakarrik koronabirusaren inguruan aritzeko. Pandemiaren jarraipena eguneroko lanarekin uztartu beharko dugu. Hemen lan faltarik ez dago!».

«Distantzia eta garbiketari buruzko neurriak gogoraraztea komeni da»

Azken egunetan jendea «erlaxatuago» dabilela sumatu dute Udaltzaingoak eta Udalak. Diote, nahiago luketela isunik ez jarzea.

ASTIGARRAGA UDALTZAINGOA

Koronabirusari aurre egiteko alarma-egoera ezarri zenetik, lanak gehitu egin zaizkiela azaltzen dute Astigarragako Udaltzaingoak eta Udalak. «Lehen egiten genituenekin berdin jarraitzen dugu: trafikoa zaindu, obrak kontrolatu... nahiz eta orain mugimendu gutxiago dagoen kaleetan. Baina, alarma egoera ezarri duen dekretuak zehaztutako baldintzak betetzen direla kontrolatzeko lana berria dugu, batez ere, jendeari adierazten zer egin daitekeen eta zer ez».

Orokorrean herritarrek ondo portatu badira ere, lana «zailagoa» dela aitotzen dute.

Etengabeko aldaketetan, zailtasuna

Denei bezala, Astigarragako Udaltzaingoiari ere neurrien etengabeko aldaketan berri jakiteak zaildu dio lana. «Zailagoa bihurtu da, neurri asko jarri dira eta horiek guztiak zaindu behar izan ditugu. Gainera, egun batetik bestera aldatu dira arauak eta horrek are gehiago zaildu du lana. Egoera oso berezia izan da denontzat;



Herritarren jarretan «denetik» izan dela dio Astigarragako Udaltzaingoak.

herritarrentzat, Udaltzaingorentzat, inoiz ezagutu gabekoa».

Dena den, txandekin ondo moldatu dira, bajaran izan ez dutelako. Segurtasun protokoloekin ere bai: «argi daukagu, distantzia mantentzea eta garbiketari buruzko neurri eraginkorrenak».

Neurrien etengabeko aldaketetara egokitzeko, berriz, «aldaketak izan direnean Ertzaintzak Udaltzaingo guztiari jakinarazten dizkigu. Irizpide horiek irakurritzen gero, garbi geratzen da zer egin daitekeen eta zer ez. Irizpide horiek publikoak dira eta edonork irakurri ditzake Ertzaintzaren webgunean. Guri galdera egiten digu-

nari emailaz bidaltzen dzkiogu».

Isunik gabe, hobe

Herritarren jarretari dagokionez, «denetik» dagoela diote, eta gehiengoak neurriak bete dituela, baina «azken egunotan jendea erlaxatuago ikusten» dela, batez ere, distantziak errespetatzeari dagokionez. Horregatik, «distantzia eta garbiketari buruzko neurriak gogoraraztea komenigarria iruditzen» zaie.

Izan ere, kasu batzuetan isunak ere jarri behar izan dituzte. «Bat bera ere ez jatzea gustatuko litzazuke, horrek adieraziko lukeelako neurri guztiak bete direla».



Jabier Ansa da Aranoko aguazila.

«Taberna eta soziedadea itxita daude oraindik»

Herritarren artean halako beldur edo errespetua nabaritu ditu Jabier Ansa aguazilak. Ondoan, umeak portatu direla dio.

ARANO JABIER ANSA

Alarma-egoera modu arinagoan bizi dute Aranon, Jabier Ansa aguazilaren arabera. «Hemen mendian gaude. Gehien nabaritu dena izan da, kontenedoreak eta udaletxeko ateak eta horrelakoak desinfektatu beharra. Hemen jende gutxi gara». Motozerra eta horrelako makinekin ez ibiltzeko agindu zioten hasieran, «zerbait pasaz gero, ospitaleak beteta zuek dela-eta. Beraz, lasaia ibili naiz, ura kontrolatu, baserrietako edadetuak bisitatu zerbait behar ote zuten jakiteko...»

Herritarren artean, hain zuzen, «beldurra edo errespetua hasieratik» nabairtu dira bere

ustez, baina ederki bete dituzte neurriak. «Umeek egokien».

Irizpide aldaketek ere ez diote buruhauste nabarmenik sortu. «Gaurko egunean denek dute telebista edo internet, eta ni baino lehenago enteratzen dira! Orain paseatzera atera daiteke, eta hemen, etxetik atera eta mendian zaude. Hernanira joaten naiz ni erosketetara, eta maskarilla eta eskularruak jarrita, nahiko. Bestela, distantzia mantentzea hemen erraza da».

Jendea ondo portatu dela-eta, «taberna eta soziedadea itxita daude oraindik, eta ea pixkanaka irekitzen diren», dio. Ehiza ere, «ez da sumatu». Abuztuan hasi beharko luke denboraldiak; «ea zerbait arreglatzen duten», dio.

«Hemen positiboa izan dugu, ez dela izandu koronabirus kasurik»

Desinfekzio lanak egin eta prebentzio neurriak hartu beharra da Fernando Goia 'Pollo' aguazilak gehien nabaritu dituen aldaketak.

GOIZUETA FERNANDO GOIA

Normalean Angel Salaberriarekin txandaka egiten ditu aguazil lanak Fernando Goia, 'Pollo'k, baina lehenagoko lesio bat medio hura bajaran dagoenez, bakarrik harrapatu du alarma egoerak. Hala ere, ez du eguneroko lanean aparte egin behar askorik izan.

Jendearekin, tratu gutxi

Alarma egoera ezarri berritan nabaritu zituen aldaketak, bereziki, funtsezko lanak bakarrik baimendu baitziren. «Hor aldatu ziren gauzak. Orain, berriro, normal ari naiz. Kontenedoreen desinfekzioa, Land Roverrarena, eskuak noiznahi garbitzea, jen-

dearekin egon behar izanez gero maskarilla janztea. Horrelakoak egiten ditut, baina bestela, berdintsu ari naiz, eta horietara nahiko ongi moldatu naiz».

Udaleko langileak ere etxetik ari direla dio, telelanean, eta beraz, jakinarazpenak etxetara eraman behar izaten dituen, sinatu behar direnez, neurriak zorrotzen dituela. «Baina ahal den neurrian saihestu dira. Bestela, jendearekin ez dugu tratu zuzen-zuzenik».

Polizia lanik ez, «zorionez»

Herritarrek neurriak betetzen dituzten, ordea, ez du bere lana. «Guk ez dugu polizia lana egin beharrik, ez dugu obligatorik,



Aguazil eta suhiltzaile aritzen da Goia.

zorionez, hemen denok ezagutzen dugu-eta, elkar!». Horretan, astero txandaka, Guardia Zibila eta Foruzaingoa dabilta. Baina «ez da isunik edo deus ailegatu».

Egoerak ere lagundu duela uste du. «Hemen positiboa izan dugu, ez dela izandu koronabirus kasurik. Zorionez, lasai ibili gara. Ez da gauza bera 700 biztanleko herri bat, edo Hernani bezala, 20.000koa».

biokbi optika

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista 12.244 zenbakia

Antziola 14
Telf: 943 33 68 86

**GURE MERKATARITZA-JARDUERARI EHINGO
DIOGU MAIATZAREN 11N, ASTELEHENA,
COVID-19REN AURKAKO
SEGURTASUN-NEURRI GUZTIEKIN**

Segurtasun handiagoa izateko, gure bezeroei eskatzen diegu alde aurretik hitzordua hartzeko.

Optikara joan behar baduzu graduazioa eguneratzeko, lentillak egokitzeko edo begietan nabaritzen duzun beste edozein eragozpen begiratzeko, maskarilla erabiltzea gomendatzen dugu. Azterketa egin ondoren, tresna guztiak desinfektatuko ditugu.

Establezimenduaren barruan, OMEk gomendatutako arauak beteko ditugu: segurtasun-distantzia, eskuak garbitzea, eta eskularru, maskara eta gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta, ahal bada, txartelarekin ordaintzeko.

Agur bero bat. Espero dugu laster normaltasunera itzultzea.

«Liburuak umore kutsu haundi bat hartu du eta irakurri dutenek hori nabarmendu dute»

Erika Elizari hernaniarrak, 'Zendabalitz' lanarekin Igartza saria irabazi eta gero, liburuaren aurkezpena egin zuen martxoan, eta dagoeneko salgai dago. Asko gozaten ari dela dio.

HERNANI LITERATURA

Erika Elizarik 2018ko irailean irabazi zuen Igartza literatur saria, idazle gazteei beren proiektua garatzeko ematen den beka, Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak antolatzen dutena. Aurkezturiko hamabi proiektuen artean, *Zendabalitz* izeneko hautatzea erabaki zuen epaimahaiak.

Martxoaren hasieran aurkeztu zenuen *Zendabalitz* liburua egoera berezi batean. Zer moduz joan da?

Garai berezia da, baina aldi berean, lehenengo aldia zen honelako prozesu batean, argitaratzearena, murgilduta ibili naizena. Suposatzen zen ikasi behar nuela honelako prozesu bat nolako den eta suertatu zait egoera honetan. Egoera bitxi honek eduki ditu fase desberdinak. Hasiera batean abantaila bat zen jendeak inoiz baino denbora gehiago zuelako irakurtzeko. Ingurukoek eskuratu zuten, batez ere, liburua, oso denbora tarte txikia egon baitzen aurkezpena eta itxialdiaren artean. Lagunek eta lankideek eskuratu zuten eta horien iritziak jaso ditut. Bi astera, ordea, dena itxi zen eta eskuratze-ko ahalegin handia egin behar zen. Geldialdi berezi bat egon da eta orain ea nola dijoan.

Orain gutxienez erosi daiteke.

Horrela da. Elkar paretik pasa naiz eta bertan dago liburua salgai. Lehendabiziko bi asteak igarota lortu zitekeen Elkarren, baina ez dut uste jendea espreski liburua erostera joango zenik. Orain, berriz, aukera hori badago.

Lehendabiziko egun hauek nola joan dira?

Nabaritzen da asko, itxialdia arindu dela. Komunikabideetatik orain gutxi hasi dira deika. Jaso ditut bat-batean dei asko. Liburu batzuk egon dira tarte honetan argirik ikusi ez dutenak, eta, gutxienez, nirea aurretik, egun batzuk lehenago atera zen.

Irailean pasa dira bi urte beka jaso zenuenetik. Izena mantendu duzu. Nola izan da prozesua?

2018ko ekainean aurkeztu nuen

proiektuari izen berdina jarri nion. Irailean saria eman zidaten eta hortik urtebetera entrega egin nuen. Niretzako idazketa prozesua izan zen saria jaso eta urtebete hori. Gero, denbora izan dut distantzia hartzeko eta lasaitzeko. Egina zegoen eta niri oso ondo etorri zitzaidan distantzia hori hartzea. Presio handia jasaten da idazteko prozesuan entrega data bat dagoenean eta asko lasaitu naiz orain arte, eta orain asko gozaten ari naiz, uste baino gehiago.

Eta gustora zaude emaitzarekin?

Uste baino lasaiago nago, urdu-riago egongo nintzela uste nuen jendearen erreakzioarekin. Oso prozesu positiboa izan da orokorrean, energia txute bat bezala. Bestetik, presioa izaten da, eta, aldi berean, bakarkakoaren segurtasun falta, presio hori areagotzen duena. Bost orrialdeko lagina saritu zuten eta gero horren beste hirukoitza edo lau-koitza idatzi behar nituen. Badi- rudi egin duzuna ondo dagoela, baina berez segurtasuna duzu saritu duten horrekiko, ez gero aterako den emaitzarekikiko, hori oraindik frogatzeko dago. Gauza batzuekin gustora nago, beste batzuekin pentsatzen duzu hobetu zitekeela, baina bukatu behar nuenez, ez dago atzera bueltarik.

Beraz, Zen eta Balitz, asko pentsatu duzu?

Ni horrelakoxea naiz. Liburuarekin ez nuen nahi bizitzeko era bat hobetsi, iraganean ez pentsatzearen aldekoa ez naiz, etorkizunarekin gehiegi ez obsesionatzearen aldekoa naiz... eta hortik sortu zen liburua edo hortaz idazteko gogo. Nahiz eta autoterapia egin gehiegi ez pentsatzeari buruz, gehiegi pentsatzen dut.

Zer da *Zendabalitz*?

Zendabalitz hegaldi gorabeheratsu baten kronika biltzen duen eleberririk bat da. Horretarako bidaiarien barne-bakarrizketez baliatzen dena. 100 lagun hegazkin baten barruan daude; aireportuan geldirik eta abioitik atera ezinik. Hegazkina airera-



Erika Elizarik bere lehenengo eleberririk argitaratu du.

tze-pistatik metro eskasera pasatu da arazo tekniko txiki bat atzeman dutelako. Ezusteko horrek zazpi bidaiarirengan kontzientzia turbulentiak sortuko ditu eta euren iraganari edota etorkizunari lotutako ardurak iratzarriko dizkie. Zen-da-balitz. Hitz-joko bat da, iragana eta etorkizunari begira. Adierazten du nola kezkatzen garen izan zenagatik edo daitekeenagatik.

Konfinamenduak eta COVID-19ak sortu dituen beldurrak eta hausnarketak badu parekotasunik hegazkinaren egoerarekin.

Horrela suertatu da. Hasiera batean ez nintzen ohartu. Badago paralelismo hori, nahiz eta egoera desberdina izan. Hegazkinean tentsioa arazo mekaniko batek jartzen du eta horrek tentsioa areagotzen du, eta konfinamenduan tentsioa denboran gehiago luzatu da.

Gainera, prozesu guzti honetan ama izan zara.

Bai. Saria jaso aurretik, uztailan, jaio zen orain bi urte beteko ditu. Bi gauzak batera bizi zain ditut, biak ere berriak niretzat. Alaba edukita ez da berdina izan. Ez banu izan seguru buelta gehiago emango nizkiola buruari eta idatzitakoari. Denbora muga nuen eta horrek dena baldintzatu du. Bikoteak munduko

denbora guztia eman dit idazteko. Azkenean hiru ordu hartzen nituen eta burubelarri aritzen nintzen liburuan lanean. Azkenean ez dakit zaildu edo erraztu egin duen sorkuntza prozesua, behartu egin bainau kontzentrazioa mantentzera, denbora batez.

Liburua irakurri duten lagunen eta inguruko iritziak edo kritikak nolakoak izan dira?

Onak izan dira, baina zaila da jakiten benetakoak diren edo gustatzen ez zaien zer edo zer gordetzen duten. Orokorrean oso ondo pasa dutela esaten dizute, beti ere zalantza horrekin. Eskertzen da kritika, gauza asko daukadalako oraindik ikasteko.

Gaurko literatura gehiena oso serioa dela irakurri dizut eta eleberririk dibertigarri bat idatzi nahi zenuela. Lortu duzu?

Beno, berez eleberririk pertsonaiek bizitzen dituztenak tontakeriak dira, nahiz eta berriak garrantzi handia eman. Beraientzat drama hutsa da bizitzen ari direna. Nobelako pertsonaiek euren egoera nahiko dramatikoak izan dute. Baina egia da, hain zuzen ere, nobelak egoera ustez dramatiko horiei buelta eman nahi diela. Eta gero garatzen edo idazten joan ahala, nahiz eta nik hori ez bilatu, uste ez nuen umore kutsu handia

hartu du. Ez nekien horra joko zuela eta neregan konfidantza ere ez nuen, gai izango nintzen umorea sortzeko. Horrek poza eman dit, jakitea jendeak barre egin duela. Gehienek hori nabarmendu dute.

Salgai dago *Zendabalitz* dendetan. Saldu ezazu.

Elkarreko eskaparatean ikusi dut. Jendeak esan dit identifikatua sentitu dela pertsonaiekin. Bere, zazpi pertsonaia dira, oso desberdinak denak, baita adinean ere, eta pasatzen zaien gauzetan. Jende desberdina pertsonaia ezberdinekin sentitu da identifikatua. Jolas moduko bat bihurtu da eta asmakizun bat zein zeinekin sentitu den identifikatua. Liburuak horri buruz ere hitz egiten du, gure barruko kezkei buruz, eta gero agian ez ditugu azalaratzen besteentzako ezezagunak bihurtuz.

Pertsonaia denek egiten dute iragana, oraina eta geroari buruzko hausnarketa?

Gordinki ez. Beraien arduren jatorria iraganean dago, adibidez pertsonaiekin bat alargun geratu zen, beste batek haundun dagoela jakin du eta lan elkarriketa batean ez du esan, eta etorkizunaz dago arduratuta. Batzuei etorkizunak, beste iraganak eta beste batzuei orainak sortzen die kezka. **K**

Apirilean 135 langabe gehiago Urumean, aspaldiko datu txarrenetara iristeko

1.337 langabe izan zituen Urumea bailarak apirilean, martxoan baino %11,23 gehiago. Bailarako herri guztietan izan du eragina krisiak, eta adin tarte guztiei egin die antzeko kaltea.

URUMEA LANGABEZIA



Fabrika eta enpresak martxan, komertzioak berriro zabalik, tabernak pixkanaka terrazak irekitzen... Bere onera bueltatu nahian ari da jarduera ekonomikoa orain. Baina Koronabirusaren eragina ez da berehalakoan gaiturik, lan munduan. Eta hala erakusten dute, apirileko langabezia eta kontratu berrien datuek: martxoan izandako datu txarrek, nabarmen egin zuten okerrera apirilean, aurreikusita zegoen bezala.

Maiatzaren aurreneko egunetan eman zituzten aditzera Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako datuak. EAEn, 10.430 langabe gehiago izan ziren apirilean, martxoan baino, eta %13ko hazkundera suposatu zuen horrek. «Pandemiak oso modu bortitzean eragin dio euskal ekonomiari. Ezin dugu neurtu noraino iritsiko den, baina datuek erakusten dute, egoera larria dela dagoeneko», nabarmendu zuen Borja Belandiak, Lanbideko zuzendariak.

Nafarroan, berriz, 3.077 langabe gehiago izan ziren apirilean, martxoan baino %8,23 gehiago. Carmen Maeztu kontseilariak onartu zuen, datuek baieztatzen dutela COVID-19ak «denbora gutxian eragin duen lanpostu suntsiketa izugarria; oso zaila da azkeneko urteotan eta historian zehar antzekorik topatzea». Baina era berean, nabarmendu zuen Nafarroa dela «lanpostu gutxien suntsitu den erkidegoa», eta bertako ekonomiaren indarguneetan konfiantza dutela.

1.337 langabe Urumea bailaran, eta soilik 466 kontratu berri

Herriz herrikako datuak, berriz, beranduago eman dituzte enplegu zerbitzuek. Eta Urumea bailaran ez dago salbuespenik, lurraldeetako datuak bezain kezkarriak dira bertakoak ere. Guztira, 1.337 langabe izan



ziren apirilean, martxoan baino 135 gehiago (1.202 ziren orduan). %11,23ko igoera suposatzen du horrek, eta aspaldiko kopururik altuena. Otsailetik, 247 langabe gehiago dira bailara osoan (%22,66 gehiago).

Kontratu berrietan nabaritu zen kolperik haundiena martxoan, eta egoera ez da hobea izan apirilean. 466 kontratu berri besterik ez zituzten jaso bailarako herritarrek, martxoko 728etatik oso urrun, eta otsaileko 1.130etatik beherakada etengabea izanda. Bi hilabetetan, beraz, %58,76 gutxitu da kontratu berrien kopurua, Urumea bailarako herritarrentzat.

Langabeziak gora, Aranon eta Goizuetan ere

Kopuru txikiagoak izanagatik ere, ez dira arinagoak, Aranon eta Goizuetan, Koronabirusaren eraginak. Bietan egin du gora langabeziak, apirilean. Aranon hirugarren langabea pilatu du, azkeneko urte erdian izan ez duena. Eta gainera, kontratu berriak ez zuten jaso aranoarrek,

hilabete osoan: otsailean bederatzita eta martxoan lau izatetik, hutsera.

Kontratu berrietan aurkituko dute goizuetarrek, argi izpi bakarra. Izan ere, otsaileko 27 kontratuetatik martxoan zortzi izateraino, beherakada izugarria jaso ondoren, apirilean koxka bat egin zuten gora berriro, eta 10 izan ziren. Pozteko arrazoi gutxi izango dute, ordea, eta kezkatzeko asko: 20 langabe izan ziren apirilean, martxoan baino lau gehiago, eta urtebetean izan duen kopururik haundiena.

27 astigartar gehiago lanik gabe, eta kontratuak erdira

Nabarmenagoa izan da krisiaren eragina, Astigarragako datuei erreparatuta. Apirilean 288 langabe izan ziren, martxoan baino 27 gehiago (261 ziren orduan). Eta otsailetik, dagoeneko 46 langabe gehiago dira, Astigarragak dauzkanak. Hori bereziki nabaritu da zerbitzuen sektorean, martxotik apirilera gehitutako 27 langabeetatik, 21 izan baitira zerbitzuetakoak.

Astigartarren kasuan ere, kontratu berriena ez da salbuespena izan, apirilean. 101 kontratu berri jaso zituzten herritarrek, martxoko erdia baino gutxiago (222 izan ziren). Eta otsaileko datuen aldean, are kezkarriagoa da, 376 kontratu berri jaso baitzituzten orduan: %73,14 egin dute behera, bi hilabeteko epean.

1.000 langabetik gora aspaldiko partez, Hernanin

Eta Astigarragan bezala, oso kezkarriak dira apirileko datuak, Hernanin ere. Oso aspaldiko partez, 1.000 langaberen langa gaiturik du Hernanin: 1.026 izan ziren apirilean, martxoan baino 103 gehiago (923 ziren), eta otsailean baino 194 gehiago. %23,32 egin du gora langabeziak, bi hilabetetan.

Astigarragan bezalaxe, zerbitzuen sektoreko langileek jaso dute kolpe haundiena, 81 lanpostu galdu baitituzte hilabetean, eta 163 otsailetik: 550 langabe izatetik, 713 izatera. Eraikuntzan bederatzita langabe gehiago izan

dira martxotik, eta industrian, zortzi gehiago.

Kontratu berriei dagokienez ere, martxoak erakutsitako larrialdia areagotu egin zen apirilean. 355 kontratu berri besterik ez zituzten jaso hernaniarrek, martxoan baino 139 gutxiago (494 izan ziren), eta otsaileko 718etatik urrutiegi.

Adin tarte guztietan, antzeko eragina

Bailara osoari erreparatuz, eta adin tarteak aztertuta, antzeko eragina izan du krisiak denetan. Horrela, 25 urtetik beherako langabeak 104 izatetik 127 izatera pasa dira. 25 eta 44 urte bitartekoak, berriz, 503 izatetik 574 izatera igo dira. Eta 45 urtetik gorakoetan, beste horrenbeste: 595 langabe ziren martxoan, eta 636 apirilean.

Sexuari dagokionez ere, ez da alde haundirik nabari. Emakumezkoetan, 671 langabe ziren martxoan, eta 724ra igo zen apirilean. Eta gizonezkoetan, martxoan 531 izatetik, 613 izatera pasa zen apirilean. **K**

Zenbaki zopa

4	0	4	4	8	2	7	1	6	6	9	6	0	9	3	1	5	5	5	9
5	2	9	0	4	2	9	0	5	8	9	4	5	5	2	0	6	6	7	0
5	2	3	5	9	2	5	2	9	4	4	1	9	6	4	8	9	5	4	4
8	3	6	2	3	8	2	3	6	6	9	7	5	5	5	1	3	5	1	6
0	4	5	3	0	5	9	6	2	1	1	2	5	4	1	8	6	8	7	8
9	4	2	0	4	5	1	5	4	8	3	7	2	2	3	7	7	9	5	4
6	0	1	2	4	8	7	5	3	9	6	9	2	5	8	3	7	0	7	5
3	0	6	3	6	0	0	4	0	8	0	1	8	9	0	2	2	1	5	5
4	6	4	5	3	1	3	3	2	1	0	1	4	7	6	3	5	6	0	9
3	4	2	4	0	3	9	3	6	0	7	8	3	3	2	6	0	1	2	8
8	1	9	2	6	3	3	9	3	0	3	0	5	3	5	5	7	7	1	5
7	8	9	2	3	6	9	8	4	1	7	6	3	2	3	0	6	1	2	1
5	4	3	6	5	1	2	2	7	4	5	1	6	4	4	0	9	0	5	6
6	1	4	8	1	4	2	0	3	4	1	7	0	5	3	1	6	2	0	7
0	9	8	9	2	8	6	6	0	6	3	1	4	9	7	2	7	3	2	2
1	6	2	9	7	5	2	7	2	5	6	5	9	2	4	0	6	4	1	7
3	5	9	8	5	4	7	8	5	1	7	4	3	9	1	4	2	0	4	9
9	3	3	8	6	2	8	5	6	2	6	9	1	4	2	5	0	9	5	1
0	4	0	7	2	5	9	0	2	7	4	9	5	9	7	4	2	2	7	9
1	8	4	6	3	6	1	0	4	1	4	5	8	1	3	3	5	8	0	0

263	8293	36512	34326059
7183	28675	924586	96093155
2164	43875	144714	89483170
4169	42152	250769	40847944
5167	35817	7109440	24039360

Sudokua

		6	4		5		7	9
7			8		2	3		
3		8						
	1	3				6		
				5		9		
8		5			9	4	1	7
5		2	9					
	7			6				1
	8				3	2		

Mezu sekretua

RIRUBUK ZE EAT PALATXE AHNI

SOLUZIOA
Burrik ez eta txapela nahi.

Ariketa matematikoa

<input type="text"/>	+	<input type="text"/>	-	<input type="text"/>	=	7
/		-		-		
<input type="text"/>	-	<input type="text"/>	x	6	=	6
x		+		+		
<input type="text"/>	x	<input type="text"/>	/	<input type="text"/>	=	7
=		=		=		
7		1		3		

EGURALDIA

GAUR

Giro iluna eta bustia izango dugu goizean; lainotuta egongo da, eta euri pixka bat egingo du. Arratsaldean, baina, atertu eta argitzera egingo du. Tenperatura nabarmen jaitsiko da. **Min.13° / Max.18°**

BIHAR

Lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira bihar, eta ostarte zabalak irekiko dira. Arratsaldean, dena den, bero-lainoak garatuko dira, eta zaparradaren bat bota dezake. Tenperatura, gora. **Min.13° / Max.20°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroea Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldari bat behar da Hernaniko enpresa industrial batean. Zereginak: bazkariaren prestaketa eta lantokiko garbiketa. Taldeen janari prestaketan aritua izatea baloratuko da. Arduratsua. Hasiera data: 2020/06/01. **Deitu: 687 756 360**
Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Online nahiz presentzialak. **Deitu: 943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua).**
Emakumea behar da etxeko lanak egin eta amona zaintzeko goizetan. **Deitu: 635 005 934 / 618 913 477**
Sozial sanitario euskalduna pertsonak zaintzeko prest, ziurtagiri eta kotxearekin. **Deitu: 678 992 110**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Hau da Festa!

Ui, ui, ui, hori da kuxidatea! Pelloziri urtebetetze-festa ospatzen ari da etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa horretan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.



«Ezin dut herriko frontoian entrenatu, beraz goi mailako kirolaria izateak, ez dit ezertarako balio izan»

Konfinamendua hasi zenetik, Amaia Irazustabarrenak, ostegunean entrenatu zuen lehenengoz Adunako frontoian. Hernanin jokatzeko baimenik ez diote eman, eta jakinarazi du «egoera honetan goi mailako kirolari bat izateak ez dit ezertarako balio izan».

HERNANI PALA

Aste honetan hastekoa zinen entrenatzen, eta azkenean oraingoz, Hernanin ez duzu aukerarik, gogo haundia?

Bai hori da, azkenean ez didate baimenik eman entrenatzeko, egia esan konfinamendua hasi zenetik ez dut egun bat bera ere entrenatu. Izugarritzko gogoe-kin nago entrenatzeko, uste dut ez naizela horrenbeste denbora egon, beno ez, uste dut ez, argi daukat, ez naizela horrenbeste denbora egon pala hartu gabe.

Beraz, ezin entrenatzeak, nola sentiarazten zaitu?

Hasieran, nahiko ondo hartu nuen, azkenean denei pasatako egoera bat izan da hau, ez niri bakarrik, ez dugu inork entrenatu, denak etxean egon dira, beraz hasieran lasai, azkenean egin behar bat zen, denak etxean gelditzea birusa ez hedatzeko.

Hasieran ondo eraman arren, azkeneko hiru aste haue- tan gaizki eraman dut, haserre, eta izugarritzko inpotentziare-kin egon naiz. Enteratu naiz, beste herrietan, eta ez dira gutxi gainera, entrenatzen ari direla. Bai federatuak, bai goi mailako kirolariak, eta nik aukera ez iza- teak sutan jartzen nau.

Frontoian entenatzeko baimena eskatu zenuen, nola joan da prozesu hau?

Egia esan askotan eskatu dut baimena frontoian entrenatzeko, batez ere, esan dizueten be- zela, azkeneko hiru aste haue- tan, hau da, lehenengo fasean sartu ginenetik. Berez legeak markatzen duelako edo, batzuk ulertzen dute posible dela aire librean jokatzeko, beste batzuek berriz ez. Baina goi mailakoak batez ere, eta nire kasuan, goi mailako kirolariaren ziurtagi- ria daukat, eta honekin, berez, aukera daukat entrenatzeko, baina dirudienez, Hernaniko udaletxeak Eusko Jaurlaritzare- kin hitz egin du, eta aipatu zidaten ezin zidatela baimen- ik eman Hernaniko frontoian entrenatzeko. Baina, nik ez dudana ulertzen da, nola bes-

te herrietan, udalek baimena ematen duten eta hemen ez. Haiek jokatzeko ari dira, eta batzuk berriz esperoan gaude.

Kontraesan asko daude, hau da, Eusko Jaurlaritzakoek esaten dute ezin dela eta Udalak baietz badio, entrenatu dezake- zu. Aipatu nahiko nuke, Hernaniko Udala, Eusko Jaurlaritzatik datozen aginduak betetzen ari dela, baina inguruko herri txikietan, Goziuetan, Astigarragan, ez goi mailako kirolariak bakarrik, federatuak ere entrenatzen ari dira egunero. Eta nik badakit baimen bat edukita, udaletxearena, posible izango nukela jokatu. Uste dut gainera, Hernani dela herri gutxienetako bat baimena ematen ez duena, edo Eusko Jaurlaritzako agin- duak betetzen dituen.

Zer moduz eraman duzu alarma egoera?

Uste baino hobeto egia esan, nik azkenean dendan lanean jarraitu dut, ahizparekin dau- kadan dendan, alimentazioa daukagunez, behar berezietako bat izan da eta ez dugu inongo momentuan itxi. Orduan, ez da aldatu nire bizitza, okerrera as- teburuak izan dira! Etxean pasa behar izan dudalako, eta entre- namenduetara ezin joan hori ere... gaizki, baina hori kendu- ta nahiko ondo! Errutina bat mantentzen saiatu naiz, goiz eta arratsaldeko lanera joaten, eta ez nengoenean lanean, ahal nuenetan etxean entrenatzen egon naiz.

Ezin izan duzu 'normal' entrenatu, zer moduz ikusten zara fisikoki?

Fisikoki orain oso ondo nago, hala sentitzen naiz behintzat. Gero behar bada frontoira joan eta azkenean hori da *la prueba de fuego*, hor ikusiko nintzake ea benetan ondo nagoen edo ez. Hemen etxean egin ditudan ari- ketak izan dira indar ariketak, muskulaturako ariketa, baino adibidez, korrika enaiz ibili orain arte, beraz hori faltako zait segu- ruenik. Baina entrenamenduak ez ditut utzi, etxean ibili naiz ahal dudana egiten.



Konfinamendua hasi zenetik, ostegunean entrenatu zuen lehenengoz Irazustabarrenak, Adunan.

Orduan etxean egin dituzun ariketak nolakoak izan dira?

Etxean, Instagrameko jarraitu- tako programa batzuk egin ditut, eta hauei esker mantentzen naiz ondo fisikoki, hilabetean 20 euro izan dira, entrenadore per- sonal bati ordaintzen diozu, eta zuretzako tablak eta ariketak egokitzen dizkizu. Hau da, as- tean hiru-lau aldiz, zure entre- namendu fisiko bat egiten zizun.

Eta elikadurari dagokionez, zer moduz eraman duzu hau berrogeialdian?

Inoiz baino hobeto, etxean egon- da gehiago kontrolatu naiz, eta oso osasuntsu jan dut. Gosea ere gutxiago izan dut, azkenean ez dut lehen erretzen nuena erre- tzen. Lehen astean bost egune- tan entrenatzen nuen, eta orain etxean ez dut horrenbeste jaten. Gainera ez dugu aukerarik izan etxetik kanpo jateko eta horrek asko egiten du. Orduan esan de- zaket, alde horretatik asko zain- du naizela eta ondo eraman du- dala elikadura kontua.

Zein dira orain entrenamen- duekin hastean hartu behar

dituzun neurriak?

Ba pixkanaka hasi behar dut, entrenatzen hasten naizenean. Ezin dut hasi oso fuerte, azke- nean enaiz entrenatu lehen egi- ten nuen moduan, eta lesioak ekar ditzake. Denbora daukat gainera, uda honetan ez direnez txapelketarik jokatu, hartu behar diren neurriak dira hasi- eran bakarka entrenatzea, eta frontoian ere bakarrik egotea. Hasieran ordu erdi bat, hurren- go egunean 45 minutu, gero or- dubete. Poliki baino aurrera.

Txapelketarik ez da egingo udan, nola hartu duzu hau?

Lehen aipatu dudan moduan, ez naiz sekula horrenbeste den- bora egon entenatu gabe, parti- duak jokatu gabe. Faltan botako dudala badakit, jada faltan bo- taten ditut, baina egoera honi begiratuta behar bada erabaki egokia da txapelketena, mo- mentu honetan gainera ez gau- de prest txapelketa bat jokatzeko, ez gaude fisikoki % 100 ean. Uste dut, erabaki onena dela. Ea hau dena amaitzean posible dugun txapelketekin hasi eta martxa hartzea!

Orduan esan daiteke, norma- lizazio batera heltzean edo, indar berrituta itzuliko zarela palara?

Bai, izugarritzko gogoe-kin nago, normaltasunera bueltatzeko go- goz nago, eta nik uste dut denbo- ra edukiko dudala, noizbait en- trenatzera joateko baimen hori edukitzen badut, indar berrituta bueltatuko naizela, gogo haun- diz, ilusioz partiduak jokatzeko, entrenatzeko, eta herri ezberdi- netako frontoietara joateko.

Ostegunean, Adunan izan zi- nen entrenatzen, zer moduz?


Bai, oso gustora, hasiera batean pentsatzen nuen, ez nintzela ondo ibiliko, pentsatzen nuen ez nuela ondo erabiliko pala! Bai- na uste baino hobeto entrenatu nuen, peloteatzen ibili nintzen, bi pareta batzuk bota nituen... Hiru ordu laurdeneko entrena- mendua izan zen azkenean eta sentazio onekin itzuli nintzen etxera. Hala ere, Adunan entre- natu nuen, eta ez nire herrian. Beraz, esan dezaket, egoera ho- netan goi mailako kirolaria iza- teak ez didala ezertarako balio izan. K

**Tokian tokikoa,
bertatik bertara,
0 kilometrora,
Kronika ere zuekin**

Eskerrik asko,
eustearen aldeko apustua
egin duzuen guztioi.

Kronika

**DO
BE
R**
EUSKARA
ELKARTEA



Lanbide Heziketa bueltan etzi, ez besterik

Inmakuladak planto egitea erabaki du, eta online jarraituko du. Instruktuak ekainaren 3tik aurrera eskainiko ditu, nahi duenarentzat, errefortzu klaseak eta selektibitatea prestatzekoak. Lanbide Heziketan, ordea, etzi itzuliko dira.

URUMEA HEZKUNTZA

Maiatzaren 25ean bai, DBH4, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleek aurreko eskolara bueltatu behar zutela azaldu zuen Cristina Uriarte, Jaurraltzako Hezkuntza Sailburua; bestela, ondo arazoitu beharko zela, klaseetara ez bueltatzea.

Urumea bailaran, Hernanin daude maila horietako ikasleak dituzten hiru zentroak, eta Lanbide Heziketa bakarrik itzuliko da.

Inmakuladan, azterketak

Planto egitea erabaki dute Inmakulada ikastetxean. Maiteder Requejo zuzendariak azaldu du

«egiten ari garen lanarekin pozik eta seguru» sentitzen direla, eta horrela jarraituko dutela, Kristau Eskolak azkenean erabakia hartzea eskola bakoitzaren esku utzi baitu. «Argi daukagu lehentasuna osasuna dela; irakasleena (arrisku taldeko batzuk badauzkagu), eta ikasle eta familiaena».

Orain arte online egin dute lan, eta «klastroarekin oso pozik» agertu da zuzendaria. «Egitura emateko, ordutegi jarraian online eman ditugu klaseak LH4 mailatik DBH4ra, 08:30etatik 14:30etara». Era berean, gurasoekin bilerak egin dituzte, eta errefortzua behar zutenei hezitzaileek tutoretzak eskaini dizkiete.

Gauzak horrela, ekainean hiruzpalau egunetan DBH4 eta erizain laguntzaile zikloko ikasleek ez ohiko azterketak egingo dira, «osasun segurtasun neurriekin», baina, gainontzean, online klaseekin segiko dute ekainaren 19an ikasturtea bukatzen den arte. «Familiekin ere hitz egin dugu, batez ere, 0-1 urte artekoekin, eta erabakia hartu dugu. Gainera, irakasle askok ere badute familia. Non geratzen da kontziliazioa? Moralak eta zentzuak hori eskatzen digu».

Instruktuak, aukera «eskaini»

Hernanin BHI instruktuak ere ez dira astelehenean itzuliko. Itzulitakoetan, ekainaren 3tik aurrera egingo dute, baina aukera hori «eskaini» egingo zaie ikasleei, Mandazubi Guraso Elkarteak adierazi duenez, atzo Kronikan argitaratutako idatzian itzulera-ekin kritiko azaldu baziren ere. Azaldu dute, Asier Mendizala-

bal zuzendariak lehenago bezala, erabaki hauek Eskola Kontseiluan hartzen direla, eta hain justu, ostegunean 'adostu' zutela erabaki berria. «Eskola komunitatea osatzen dugun irakasle, ikasle, guraso eta ez dozentek guztiok ez dugu uste klase bueltatzeko obligazioa egon behar duenik, batetik eta gehienbat, osasun arazoengatik, eta bestetik, ikasturtea bukatua dagoelako, ebaluazio irizpideak ezarrita eta bai irakasle, ikasle eta familiok oso nekatuta gaudelako, egin dugun lan itzela dela-eta».

Dena den, etzi itzultzea «prezipitatu» dela uste arren, ekainaren 3tik aurrera DBH4 eta Batxilergoko ikasleek errefortzurako eta selektibitatea prestatzeko klaseak «eskaintzea» erabaki dute, «gehienez ere 3 orduz» eta «osasun neurriak bermatuta».

Proposamena onartzea Laukuako ikuskaritzaren esku dago orain.

Lanbide Heziketan, «ez dugu inor derrigortuko»

Astelehenean itzuliko direnak Lanbide Heziketakoak izango dira, Ainhitze Blanco zuzendariak azaldu duenez. «Jarraibideak bidali dizkigute».

Kasu honetan, klaseak «oso praktikoak» direla azaldu du, nahiz eta teoria ere landu. «Bigarren mailakoak bukatu dute ia. Praktikak online egiten ari dira, eta ahal dutenak enpresetara itzuliko dira. Lehenengo mailakoekin, berriz, galdutako tailer orduak errekupeartzeko plan bat egin dugu». Maskarillak derrigorrezkoak dira, eta baita distantziak mantentzea, eskuak garbitzea... Baina itzuliko dira. Beraz, astelehenean, «talde txikitik eta beharra dutenei lehentasuna emanez» klase bueltatzeko dira. Dena den, «derrigortu, ez dugu inor egingo», azaldu du, «zentzuarekin jokatzeko saiatzen gara». K

Elkarlanean dihardugu.

Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu.

Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak.

